

9. artikulua. Jarduera eteteagatiko prestazioa eta norberaren konturako lana.

1. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dkretuaren 17. artikuluan aurreikusitako **jarduera eteteagatiko ezohiko prestazioa ekainaren 30era arte jasotzen duten** langile autonomoek urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren **327. artikuluan** aurreikusitako jarduera eteteagatiko prestazioa eskatu ahal izango dute, betiere, **arauaren 330.1. artikulua**ren a), b), d) eta e) idatz-zatietan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte.

Horrez gain, prestazio hori eskuratzeko, egiaztatu egin beharko da **2020. urteko hirugarren hiruhileko fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela 2019. urteko epealdi beraren aldean** eta 2020ko hirugarren hiruhilekoan lortutako etekin garbiak **5.818,75 eurotik** gorakoak ez direla.

Hileko prestaziorako eskubidea zehazteko, hiruhileko etekin garbiak hainbanatuko dira, eta ezingo dira **hileko 1.939,58 eurotik** gorakoak izan.

Langile autonomoek **langile bat edo gehiago ardurapean badituzte**, prestazioa eskatzen dutenean egiaztatu beharko dute lanaren zein Gizarte Segurantzaren arloan euren gain hartu dituzten betebeharrak guztiak betetzen dituztela. Horretarako, erantzukizunpeko adierazpena egingo dute, eta Gizarte Segurantzarekin lan egiten duten mutualitateek edo erakunde kudeatzaileak hori egiaztatzen duten beharrezko agiriak aurkezteko eskatu ahal izango diete.

2. Prestazio hau **2020ko irailaren 30era arte** jaso ahal izango da **gehienez ere**, betiere, langileak horretarako eskubiderik badauka Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 338. artikuluan zehaztutako baldintzen arabera. **Egun horretatik aurrera**, ezinbestekoa izango da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren **330. artikuluan zehaztutako eskakizun guztiak** betetzea jarduera eteteagatiko prestazio hori jasotzen jarraitzeko.

3. Prestazioa mutualitate laguntzaileek edo Itsasoko Gizarte Institutuak **aitortu beharko dute behin-behinean**, eta **2020ko uztailaren 1ean izango ditu ondorioak uztailaren 15a baino lehen eskatuz gero**; edo, **eskabidearen osteko hurrengo egunetik hasita, beste kasu batean**. Gainera, 2021eko urtarrilaren 31tik aurrera erregularizatu beharko da.

4. **2020ko urriaren 21etik eta 2021eko otsailaren 1etik aurrera**, Gizarte Segurantzarekin lan egiten duten mutualitateek, betiere, interesdunek eskabidean eskuetsitako baimena badute, edo Itsasoko Gizarte Institutuak **Ogasun Ministerioari eskatuko dizkiote** aitortutako prestazioen jarraipenerako eta kontrolerako behar diren 2019ko eta 2020ko ekitaldietako **zerga-datuak**.

Gizarte Segurantzarekin lan egiten duten **mutualitateek** edo Itsasoko Gizarte Institutuak zerga-administrazioek dituzten datuak eskuratzetik ez balute, **langile autonomoek** mutualitate laguntzaileari honakoa **aurkeztu beharko diote** eskatu osteko hurrengo hamar egunetan:

2019. eta 2020. urteetako bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) autolikidaziorako egindako aitortpenen **303. ereduaren kopia**. 2019. eta 2020. urteetako bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) ordainketa zatikatuaren autolikidaziorako aurkeztutako **130. ereduaren kopia**, urte horietako hirugarren eta laugarren hiruhilekoei zer dagokien zehaztu ahal izateko.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) **zenbatespen objektiboaren arabera** (131. eredua) ordaintzen duten langile autonomoek behar diren agiriak edo beste edozein frogabide aurkeztu beharko dituzte, agindu honetan eskatutako diru-sarrerak egiaztatzeko.

5. Prestazioa aitortzeko eskumena duen erakunde laguntzaile edo kudeatzaileak datuak egiaztatzen dituenean, langile autonomoei **jasotako prestazioak erreklamatuko zaizkie**, agindu honetan zehaztutako diru-sarreraren mugak gainditzen dituztenean edo 2019. urteko epealdi beraren aldean 2020. urteko hirugarren hiruhileko fakturazioa gutxienez ehuneko 75 murriztu dela egiaztatzen ez dutenean.

Erreklamaziorako eskumena duen erakundeak erreklamatutako zenbatekoak inolako interesik eta gainordainik gabe ordaintzeko eguna zein den zehaztuko du.

Horretarako ematen den ebazpenean zehaztutako epea igarotakoan, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ordaindu gabe dagoen zorra erreklamatuko du, ekainaren 11ko 1415/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzako Diru Bilketari buruzko Araudi Orokorrean diru-bilketarako zehaztutako prozedura administratiboaren arabera ezarri beharreko gainordainak eta interesak kontuan hartuta.

6. Prestazioa jasotzen duen bitartean, **langile autonomoak** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian sartu beharko ditu **kotizazio guztiak**, eta, horretarako, kasuan kasuko kotizazio-oinarriaren arabera indarrean dauden tasak ezarri beharko ditu.

Mutualitate laguntzaileak edo, hala badagokio, Itsasoko Gizarte Institutuak **langileari jarduera eteteagatiko prestazioarekin batera ordainduko dio** langile autonomoa inolako jarduerarik garatu gabe egon bazen **kontingentzia arruntengatik** ordaindu beharko zituen **kotizazioen zenbatekoa**, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege-dekretuaren 329. artikuluan xedatutakoa ezartzeko asmoz.

7. 2020ko **irailaren 30a baino lehen jarduera behin betiko eteten bada**, paragrafo honetan zehaztutako eskakizunen mugak modu proportzionalen kontuan hartuko dira jardueraren iraunaldiaren arabera. Ondorio horietarako, kalkulua egiteko orduan, Gizarte Segurantzaren dagokion araubidean baja hartu dueneko hilabetea kontuan hartuko da oso-osorik.

8. Honakoa **egin ahal izango du** artikuluko honetan araututako prestazioaren ordainketa eskatu duen langile autonomoak:

2020ko **abuztuaren 31 baino lehen edonoiz uko egitea**. Halakoetan, ukoak jakinarazi osteko hurrengo hilabetean izango ditu ondorioak.

Jarduera eteteagatiko **prestazioa nork bere ekimenez itzultzea**, Gizarte Segurantzarekin lan egiten duen mutualitateak edo erakunde kudeatzaileak erreklamatu arte itxaron gabe, bere ustez 2020ko hirugarren hiruhilekoan edo epealdi bereko fakturazioaren beherakadan jasotako diru-sarrerak 5. paragrafoan zehaztutako atalaseak gainditzen dituztenean, horren ondorioz prestaziorako eskubidea galduko litzatekeela kontuan hartuta.